

Ordizian, **2016ko urriaren 6a** UDALBATZARRAK Ohiko bilkura egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

BERTARATUTAKOAK:

LEHENDAKARIA:

José Miguel Santamaría Ezeiza jn.

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Angelica Moreno Heras	EAJ/PNV
Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ/PNV
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	Ordiziako E.H. Bildu
Belen Maiza Urrestarazu	Ordiziako E.H. Bildu
Adur Ezenarro Agirre	Ordiziako E.H. Bildu
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	Ordiziako E.H. Bildu
Jon Ander Caballero Zubelzu	Ordiziako E.H. Bildu
Miren Alazne Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
M. Jesus Soto De Los Santos	Ordizia Orain

IZAN EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

Iñaki Dubreuil Churruca jauna	Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak
-------------------------------	---------------------------------------

IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta and.

KONTUHARTZAILEA:

Mikel Zubizarreta Elicegui jn.

AZTERTUTAKO GAIK

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIK:

- 1.- 2016ko uztailaren 21ean egindako osoko bilkuraren akta onartzea.
- 2.- 2016ko abuztuaren 30ean ezohiko deialdian egindako osoko bilkuraren akta onartzea.
- 3.- Ekainetik abuztuaren 31ra bitarteko dekretuen zerrenda.
- 4.- 2016ko 2. eta 3. hiru hilekoetan kontu-hartzaileak egindako ingeren berri ematea osoko bilkuran.
- 5.- 2017ko Autotaxi tarifak.

6.- Ordenantza Fiskalak.

7.- Galderak eta eskaerak

ORDUTEGIA:

HASIERA: 19:00 etan

AMAIERA: 19:35ean



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

1.- 2016ko uztailaren 21ean egindako osoko bilkuraren akta onartzea.

Proposamena

2016ko uztailaren 21ean egindako osoko bilkuraren akta onartzea.

Eztabaida

Sukia andrea

Adierazi du eguneko gai-ordenaren 2. puntuan “Udalak eta bere erakunde autonomo eta menpe dauden erakundeak azpikontratetan eman behar diren lan baldintzen defentsan” LAB sindikatuak aurkeztutako proposamenean, aktaren 8. orrialdean, euskara eta gaztelaniazko bertsioetan, bere interbentzioan honako hau jasotzen dela:

“Nolanahi ere bere taldeak mozioaren alde bozkatuko duela esan du baina 11 zenbakidun puntua kentzea atzera egitea dela nabarmendu du puntu garrantzitsuenetako bat dela uste duelako.”

Esan du esaldiaren aurreneko atala berea dela; baina 11. puntua punturik garrantzitsuenetako dela esatea eta azpimarratzea ez zuela berak egin, Eguren jauna izan zela.

Idazkari and.

Baieztatu egin du hori eta adierazi du hain zuzen ere Eguren jaunaren interbentzio batean jasotzen dela hitzez hitz esaldi hori.

Bozketa

Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du aipatutako aldaketa egin ondoren.

Aldekoak: 12 (EAJ/PNV 5, Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Alkate jaunak ondorioz, aipatutako zuzenketa egin ondoren, akta onartutzat eman du.



2.- 2016ko abuztuaren 30ean ezohiko deialdian egindako osoko bilkuraren akta onartzea.

Proposamena

2016ko abuztuaren 30ean ezohiko deialdian egindako osoko bilkuraren akta onartzea.

Eztabaida

Eguren jauna

Azaldu du bilkuraren aktan akats bat dagoela bertaratutako zinegotzien zerrendan bera azaldu zelako eta ez delako aktan jaso hori. Aitzitik, Intsausti andrea ez zen bertaratu eta bertan zela jaso da aktan.

Bozketa

Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du aipatutako aldaketa egin ondoren.

Aldeko botoak: 7 (EAJ 4, Ordiziako E.H.BILDU 2. Ordizia Orain 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 5 (Bittor Bolinaga, Adur Ezenarro, Jon Ander Caballero, Miren Alazne Sukia, Izaro Intsausti). Abstenitu egin dira ez zirelako bilkurara joan.

Beraz, Alkate jaunak akta onartutzat jo du aipatutako aldaketak egin ondoren.



3.- Ekainetik abuztuaren 31ra bitarteko dekretuen zerrenda.

Jakinaren gainean geratu da Udalbatzarra.



4.- 2016ko 2. eta 3. hiru hilekoetan kontu-hartzaileak egindako ingeren berri ematea osoko bilkuran.

Sukia andrea

EMANEURREri emandako 12.000 euroko diru-laguntzaren justifikazio prozedurari buruz galdetu du, izan ere, diru-laguntza hori Kontu-hartzailearen ingeretako bat izan da.

Alkate jauna

Erantzun dio esanez horretan ari direla. Datuei buruzko zuriketa-memoria bat aurkeztu behar dute.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratu da.



5.- 2017ko Autotaxi tarifak.

Proposamena

AGITAX, Gipuzkoako Taxisten Elkarteko presidente Emilio Fernandez Fidalgo jaunak aurkeztutako idatziaren berri eman da. Idatzi horretan, auto-taxien herri barruko 2017rako tarifak onartzea eskatzen du, ondoren zehazten den eran:

2017ko HERRI BARRUKO TARIFAK			
KONTZEPTU TARIFA	ABIASARIA	EGINDAKO KILOMETROAK	ITXARON ORDUA
TARIFA 1*	3,4588	1,0828	20,6819
TARIFA 2**	3,4588	1,7269	32,5052

* Lanegunetan, 07:00etatik 22:00ak arte.

** Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00etatik 7:00ak arte. Bai igande eta araudi autonomika eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 07:00tik 22:00 arte bai larunbatetan, eta abenduaren 24 eta abenduaren 31 egunetan.

AGITAXek tarifak justifikatuz prestatu duen txostena ekonomikoa ikurik

Herri barruko gaurko dauden tarifak, hauek dira:

2016eko HERRI BARRUKO TARIFAK			
KONTZEPTU TARIFA	ABIASARIA	EGINDAKO KILOMETROAK	ITXARON ORDUA
TARIFA 1*	3,4588	1,0828	20,6819
TARIFA 2**	3,4588	1,7269	32,5052

* Lanegunetan, 07:00etatik 22:00ak arte.

** Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00etatik 7:00ak arte. Bai igande eta araudi autonomika eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 07:00tik 22:00 arte bai larunbatetan, eta abenduaren 24 eta abenduaren 31 egunetan.

Gauzak hala, Plenorako Gaien Batzordeak honako hau proposatzea erabaki du:

AKORDIO PROIEKTUA.

1.- Onartzea 2017rako auto-taxien tarifak, esposizio-atalean esandakoaren arabera.

2.- Erabaki hau Goiekiri jakinaraztea.

Eztabaida

Alkate jauna

Jakinarazi du urtero egiten den moduan auto-taxien tarifak onartu behar direla eta 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera sartuko direla indarrean.

Datorren urterako ez da igoserarik proposatzen. Tarifak bere horretan geratuko dira.

Bozketa

Aldekoak: 12 (EAJ/PNV 5, Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



6.- Ordenantza Fiskalak.

Proposamena

Alkate jaunak aurkeztu du 2017rako udal tasa eta zergei buruzko proposamena. Gaiaz eztabaidatu eta gero, 2016ko irailaren 28an egindako Plenorako Gaiien Batzordeak honako hau erabakitzea proposatu zuen, beti ere 11/1989 Foru Arauak (uztailaren 5ekoa, Gipuzkoako Herri- Ogasunak arautzen dituen), ezarritakoa betetzen aldera

AKORDIO PROIEKTUA

1.- Honako hau onartu behin-behinekoz izaerarekin 2017ko ekitaldian aplikatzeko.

A) 1. ORDENANTZA FISKALA ALDATZEA, ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA.

B) 2. ORDENANTZA FISKALA ALDATZEA, UDALERRIKO JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA.

C) 3.ORDENANTZA FISKALA ALDATZEA, TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA.

D) 4. ORDENANTZA FISKALA ALDATZEA, ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA.

E) 5. ORDENANZA FISKALA ALDATZEA, HIRI-LURREK IRABAZITAKO BALIOAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA

F) 6.ORDENANTZA FISKALA ALDATZEA, ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINTZEAGATIK ETA ADMINISTRAZIO EKINTZAK EGITEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUENA..

G) 7.ORDENANTZA FISKALA ALDATZEA, ERABILERA PRIBATIBOKO EDO HERRIKO JABETZA PUBLIKOA MODU BEREZIAN APROBETXATZEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUENA.

2.- Ordenantza jendaurrera jarri Iragarki-Taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 30 egunetan, eta Korporazioak erabakiko dituen erreklamazio eta iradokizunetarako interesa dutenei aukera eman. Erreklamaziorik ez balego, behin betirako onartutzat joko da Ordenantza, erabaki gehiago beharrik gabe.

Eztabaida

Alkate jauna

Azaldu du irailaren 29an egin behar zela osoko bilkura baina astebete atzeratu dela ordenantza fiskalak hasierako izaerarekin onartu behar direlako eta erakustaldi publikoaren tramitea hasi behar delako ahalik eta azkarren behin betiko onartzeko denbora eman dezan eta 2017ko urtarrilaren 1a baino lehen argitaratzeko, egun horretan sartuko baitira indarrean.

2016ko irailaren 28an Osoko Bilkurarako Gaien Batzordean osoko bilkuran sartzeko aldeko irizpena eman zitzaiola azaldu du; hala ere, gai batzuk zintzilik geratu ziren talde politikoek aztertu behar zituztelako eta akordio batera iristeko saiakera egin nahi izan dutelako.

Akordio hori lortu da eta bilkura hastean, Idazkariak zinegotzi guztiei banatu dien oharrean, Informazio Batzordean zintzilik geratu ziren gaiak buruzko erabakiak edo aldaketak azaltzen dira. Informazio batzorde honetan irizpena jaso duen agirian proposatzen diren aldaketak jarraian zerrendatzen dira:

- 1) OHZren %50eko erreklargua. Errekarguaren salbuespena zein kasu zehatzetan aplikatuko den arautu da eta horrekin batera hondar-klausula bat ere arautu da arautu gabeko kasuetan osoko bilkurak izan dezan hori erabakitzeko ahalmena; hala ere horretarako, salbuespen kasua izan behar du aurretik Osoko Bilkurarako Gaien Informazio Batzordeak erabakita.
- 2) Hondakinak biltzeko tasa. Aurkeztutako bi proposamenen artean, orokorrean %10eko igoera egitea proposatzen da. Elikagai-denden kasuan gainera, arrandegi jarduera izan eta 3 langile baino gehiago dituztenetan, 107,02 euroko tasa bat kobratzea proposatzen da jardueraren titularrak arduratzen baitira sortzen dituzten hondakinak egunero Garbigunera eramateaz.
- 3) Bestalde, 6 zenbakidun Ordenantzan, zerbitzu publikoak eman eta jarduera administratiboak burutzeagatik kobratzen diren tasak arautzen dituen Ordenantzan, tasa berriak sartu dira garabi bidez ibilgailua kentzeagatik, ibilgailuetan zepoak jartzeagatik eta kendutako ibilgailuak gordetzeagatik kopurua/eguneko.

Alkate jauna

Adierazi du, bere taldeak orokorrean ordenantza fiskalen alde bozkatuko duen arren, 1 zenbakidun Ordenantzan OHZren %50eko errekaruarekin ados ez daudela, hondakinen bilketa tasarekin ezta ere.

Bozketa

Aldekoak: 12 (EAJ/PNV 5, Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



7.- Galde-erreguak

Ez dago.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.